



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

22. HILABETEKO IRUZKINA

> 2011ko Otsaila



GIPUZKOA



PERTSONAKO BPG GIPUZKOAN ETA EUROPAR BATASUNEAN

- > Gipuzkoan pertsona bakoitzeko BPGa 30.278 euro da, eta azken hamahiru urteetan bikoiztu egin da

Gipuzkoan pertsonako BPGa 30.278 eurotan kuantifikatu zen 2009 urtean, Eustatek egindako balioespenen arabera. Azken urteotan adierazle hau izugarri hazi da, eta baldintza arruntetan, 1996ko balioa bikoiztera iritsi da; hain zuzen ere, urte horretan balioa 15.195 eurora iritsi zen.

Azken hamahiru urteotan Gipuzkoako biztanleriaren batez besteko errenta bikoiztearekin batera, kontsumo-prezioak % 43 hazi dira, eta ondorioz, errentaren igoera erreala % 39an balioetsi daiteke. Hau da, % 3ko batez besteko hazkunde erreal iraunkorra azken hamahiru urteotan.

Gipuzkoako biztanleriaren aberastasun eta ongizatearen hazkundea moteldu egin da azken bi urteotan, ekonomia-krisiak nazioarteko produkzio-ehunaren eta enpresa gipuzkoarren gainean izandako eraginaren ondorioz. Hain zuzen ere, 2008 urtean, biztanle bakoitzeko BPGa % 0,7 igo zen eta 2009 urtean % -5,2 egin zuen atzera.

Biztanle bakoitzeko BPGaren hazkundea Gipuzkoako biztanleriaren aurrerapen arin bati lotuta dago, izan ere, epe horretan biztanle kopurua % 4,4 hazi zen.

Gipuzkoako per capita BPGa

Urtea	Euro	Aldaketa %
1996	15.195	7,1
1997	16.241	6,9
1998	17.772	9,4
1999	19.175	7,9
2000	20.667	7,8
2001	21.901	6,0
2002	22.797	4,1
2003	24.038	5,4
2004	25.630	6,6
2005	27.250	6,3
2006	29.637	8,8
2007	31.714	7,0
2008	31.951	0,7
2009	30.278	-5,2

Iturria: Eustat



- > 2008an, Europar Batasunean pertsona bakoitzeko BPGa 25.100 euro zen, eta estatu kideen arteko desberdintasunak nabarmenak ziren

Eurostatek berriki (2011ko otsaila) Europako 271 eskualdeetan biztanle bakoitzeko 2008 urteari dagokion BPGaren inguruko argitalpena kaleratu du, eta horren arabera, Batasunean biztanle bakoitzeko batez besteko BPGa 25.100 euro da.

Estatu kideen arteko desberdintasunak oso handiak dira. Horrela, Luxenburgon biztanleko BPGa Batasuneko batez bestekoaren % 324 da, Danimarkan % 169, Holandan % 145, Suedian % 143 eta Finlandian % 139.


Honako hauek dira biztanleko BPG baxuena duten estatuak: Bulgaria (Batasuneko batez bestekoaren % 19), Errumania (% 26), Polonia (% 38), Lituania (% 38) eta Letonia (% 41). Horrenbestez, bost estatu pobreenen eta bost aberatsenen batez bestekoaren harremana 1etik 5,7 artekoa da.

Biztanleko BPGa EB-27an eta bere estatu kideetan

2008 urtea

Estatuak	Euro	EB-27aren batez bestekoa=100
EB-27	25.100	
Luxenburgo	81.200	323,5%
Danimarka	42.500	169,3%
Irlanda	40.500	161,4%
Herbehereak	36.300	144,6%
Suedia	36.000	143,4%
Finlandia	34.800	138,6%
Austria	34.000	135,5%
Belgika	32.200	128,3%
Frantzia	30.400	121,1%
Alemania	30.200	120,3%
Erresuma Batua	29.600	117,9%
Italia	26.200	104,4%
Espainia	23.900	95,2%
Zipre	21.800	86,9%
Grezia	21.100	84,1%
Eslovenia	18.400	73,3%
Portugal	16.200	64,5%
Txekiar Errepublika	14.200	56,6%
Malta	14.100	56,2%
Estonia	12.000	47,8%
Eslovakia	11.900	47,4%
Hungaria	10.600	42,2%
Letonia	10.200	40,6%
Lituania	9.600	38,2%
Polonia	9.500	37,8%
Errumania	6.500	25,9%
Bulgaria	4.700	18,7%

Iturria: Eurostat



- > Europako eskualdeetan biztanleko BPGa Europar Batasunaren batez bestekoaren % 28aren (Bulgariako Severozapaden eskualdea) eta % 343aren (Inner London) artean dago

Europako eskualdeen sailkapenaren lehen tokian Inner London eskualdea dago, eta Batasuneko per capita BPGaren % 343 du (erosketa berdintasunaren arabera). Jarraian, Luxenburgo (279), Brusela hiriburua (216), Groningen (198) eta Hanburgo (188) daude. Oro har, produkzioaren arabera aberastasun handiena duten eskualde askok jardura ekonomikoaren kontzentrazioaren eta norberak bere estatuan duen hiriburutzaren ondorioz jasotzen dute.

Hau da, euren jardueraren zati bat beste eskualde batzuetan bizi diren biztanleek sortzen dute; horiek, nukleo ekonomiko eta administratibo horietara hurbiltzen dira jardura garatzera. Modu horretan, biztanleko produkzio handiena duten hamar eskualdeen artean, zortzi euren estatuetako hiriburuak dira.

Biztanleko BPG handiena duten hogeit hamar eskualdeak

2008 urtea, erosteko ahalmenaren berdintasunaren arabera

Rankinga	Eskualdea (NUTS2)	Estatua	EB-27aren batez bestekoa=100
1	Inner London	Erresuma Batua	343
2	Luxenburgo	Luxenburgo	279
3	Bruxelles Capitale/Brussels Hoofdstad	Belgika	216
4	Groningen	Herbehereak	198
5	Hamburg	Alemania	188
6	Praha	Txekiar Errepublika	172
7	Île de France	Frantzia	168
8	Stockholm	Suedia	167
9	Bratislavský Kraj	Eslovakia	167
10	Wien	Austria	163
11	Oberbayern	Alemania	162
12	Breman	Alemania	158
13	Utrecht	Herbehereak	157
14	North Eastern Scotland	Erresuma Batua	157
15	Darmstadt	Alemania	156
16	Berkshire, Buckinghamshire & Oxfordshire	Erresuma Batua	154
17	Noord-Holland	Herbehereak	152
18	Hovedstaden	Danimarka	152
19	Southern & Eastern	Irlanda	148
20	Åland	Finlandia	145
21	Salzburgo	Austria	142
22	GIPUZKOA	España	139
--	20+ BATEZ BESTEKOA	-----	180

Iturria: Eurostat



Beste muturrean, Bulgariako eta Errumaniako eskualdeak per capita BPGaren azken lekuetan kokatzen dira. Baldintza ekonomikoen arabera egoera txarrean dauden hamar eskualdeen artean, Bulgariako bost eskualde, Errumaniako lau eta Poloniako bat daude.

Eskualde horien aberastasuna Batasuneko batez bestekoaren % 40aren azpitik kokatzen da, eta Europar Batasuna osatzen duten lurralde desberdinen artean zein estatu kideak osatzen dituzten eskualdeen artean dauden desberdintasun handiak islatzen ditu.

Biztanleko BPG txikiena duten hogeit hamar eskualdeak

2008 urtea, erosteko ahalmenaren berdintasunaren arabera

Rankinga	Eskualdea (NUTS2)	Estatua	Adierazlea (EB-27=100)
1	Severozapaden	Bulgaria	28
2	Nord-Est	Errumania	29
3	Severen tsentralen	Bulgaria	30
4	Yuzhen tsentralen	Bulgaria	30
5	Yugoiztochen	Bulgaria	36
6	Sud-Vest Oltenia	Errumania	36
7	Severoiztochen	Bulgaria	37
8	Sud-Est	Errumania	39
9	Podkarpackie	Polonia	39
10	Sud-Muntenia	Errumania	39
11	Lubelskie	Polonia	39
12	Észak-Magyarország	Hungaria	40
13	Észak-Alföld	Hungaria	40
14	Podlaskie	Polonia	41
15	Nord-Vest	Errumania	41
16	Warmińsko-Mazurskie	Polonia	42
17	Dél-Alföld	Hungaria	43
18	Dél-Dunántúl	Hungaria	44
19	Centru	Errumania	45
20	Swietokrzyskie	Polonia	45
--	20- BATEZ BESTEKOA	-----	38


Iturria: Eurostat.



> Gipuzkoako per capita BPGa Europar Batasuneko batez bestekoa baino % 39 handiagoa da

Erosteko ahalmenaren berdintasunaren arabera (Eurostateg Estatuen deflatorea aplikatzen du: Espainiako prezioen maila Europar Batasunaren batez bestekoaren % 92 da), Gipuzkoako per capita BPGa Batasuneko batez bestekoaren % 139 da, 2008 urteko datuak kontuan hartuta.

Europako eskualdeak erreferentzia gisa hartuta (NUTS-2 sailkapena; sailkapen honetan ez da Gipuzkoa sartzen), Gipuzkoa eskualdeetako sailkapenaren 22. lekuan kokatuko litzateke, Frantziako eta Espainiako eskualde guztien gaineretik, Île de France eta Madriletik oso gertu dagoen eskualdea, nola Euskadi eta Nafarroa salbu.





> Informazio gehiago

Europar Batasuna:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/1-24022011-AP/EN/1-24022011-AP-EN.PDF

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-HA-10-001

Gipuzkoa:

http://www.eustat.es/elementos/ele0002100/ti_Biztanleko_BPGa_lurralde_historikoaren_arabera_Uneko_prezioa_k_oinarri-urtea_2005__1980-2009a/tbl0002160_e.html#axzz1HJbljSRJ